



Akzesible taldeak argitara eman du urteotako lana

Mugikortasun murriztua duten herritar taldea antolatu da Andoainen, irisgarritasunaren aldeko lan isila eginez / 2-4

Amaia Agirre gogoan

Ezbeharrak eragin handia izan du, Urnietan / 10-11

Elikagai bilketari ekin dio Hurria-Sahara elkarteak, oraingoan, soilik ikastetxeen bitartez / 6

C2ak kaltetutakoen plataformak dekalogo aurkeztu eta babesak jasotzeari ekin dio / 8-9



kutxabank
MASTERS
TXAPELKETA 2023

URTARRILAK 28 LARUNBATA
16:30ETIK AURRERA

1. PARTIDUA (40 TANTO)
URRUTIA II - MARTINEA vs
ZALDUA II - LABAKA

MASTER TXAPELKETA (30 TANTO)
BARRENETXEA IV vs EZKURRA II

3. PARTIDUA (40 TANTO)
URRIZA - ZUBIRI vs
ANSA II - ZALDUA

DALARRETA JAI ALAI HERNANI

ORIA MENDI | ERREMONTEA BIZIRIK

Orona

PAPELERA CUPUZCONA LOPE DE ZUÑIGA, S.A.

sukia

AIURRI



Iñigo Iruretagoiena, Imanol Fernandez, Juanjo Guirado eta Oihana Jauregi. Azaleko argazkian Peio Jauregirekin batera ageri dira, hamar urtetan atondu dituzten zenbait txostenekin batera. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Elkartea mugikortasun arazoak dauzkaten nahiz ez dauzkaten pertsonen osatzen dute, eta hamar urtetik gora daramate Andoain bizigarriago eta irisgarriago baten alde ekimenak burutzen, isileko lanari helduta. Aitortu dutenez, arlo horretan asko aurreratu da denboraldi horretan, elkarteak udalari planteatu dizkion proposamenei esker, besteak beste.

Taldearen sortze-prozesua

Egun, elkarteko kide diren Juanjo Guirado, Imanol Fernandez, Oihana Jauregi, Iñigo Iruretagoiena eta Peio Jauregi batu zaizkigu, elkartearen asmo eta ibilbidearen eta etorkizuneko planteamenduen gainean mintzatzeko.

2012 aldera eratu zela elkartea eta horretarako mugikortasunaren alorra alde banatetik jorratzen ari ziren hiru pertsona batu zirela esanez ekin diote elkarriketari.

Iuregoienak hartu du hitza: "Gurpildun aulkian ibiltzen garen Oskar Letamendi eta biok,

Mugikortasuna errazteko xedean, jendaurrean aurkeztu dute Ackzesible taldea

"Ackzesible Andoain Irisgarria" izeneko elkartea plazara irten da. Berez, zenbait herritarrek 2012an jarri zuten abian elkartea, mugikortasuna murriztuta daukaten andoaindarren eskubideak bermatzeko asmoz. Horretan jardun dute, plazara irten diren arte

behin, gu bezalakoek mugitzeko herrian geneuzkan arazoekin kezkatuta, zera erabaki genuen: argazki kamera eskuetan hartu, eta herriko traba arkitektonikoen inbentario modukoa egitea. Horretarako, herria zeharkatu genuen, Sorabilla abiapuntu izanik, eta Bazkardo-Kaletxiki bitarte. Ondoren, etxean, google maps aplikazioaz baliatuz, argazkiak kokatu eta hiru koloreez jositako Andoain marraztu genuen: berdea (irisgarria), laranja (erdipurdi) eta gorria (ez irisgarria). Informazio guztia eskuan edukita, udaletxeko bidea hartu, eta bilera eskatu genuen. Irtenbideak topatzeko proposamenekin joan ginen".

Denbora beretsuan, Peio Jauregi ere bazebilen gaia lantzen. "Gure aitak (Pedro Jauregi) gurpildun aulki batean egin zituen bere azken urteak, eta ahal nuen neurrian lagundu egin nion, bizimodua ahalik eta normalizatuena egin zezan. Kaleraren irteten zenean, hiru ibilbide erabiltzeko ohitura zeukan nagusiki, erosketetara, elkartera eta banketxera alegia, eta Hortaz, bidean zeuzkan zailtasunak identifikatzen zituen idatzia aurkeztu nion Udalari. Aita hil zen, baina eskubide horien aldeko sentiberatasuna utzi zidan "oinordetzan". Denbora hartan Oskar eta Iñigo ezagutu nituen, eta planteamenduekin bat gertozenez, hiruok elkarrekin segitzea adostu genuen".

Hirukoak martxan jarritako ekimenera Imanol Fernandez, Juanjo Guirado eta Oihana Jauregi batu dira geroztik, eta nork bere ekarpena egin du.

Hasieran, planteamendu xumeak

Ez zuten denbora askorik igaro behar izan zehazterakoan zein zen Andoainen mugikortasunaren alorrean egin beharreko diagnostikoa: "Andoainen premia izugarria zegoen gauzak hobetzeko, aulki gurpildunek ezin baitzuten espaloietatik ibili, hainbat zebra-bide gurutzatu, hainbat komertzioetara sartu, udal eraikinetara sartu edo barruan ibili... Hainbat ibilbidetan errepidera irten behar izaten zuten derrigor, eta arriskutsua gertatzen zen ekintza hori".

Bestalde, giza eskubideen aldetik ere, legedia ondo aztertu zuten: "Nazioarteko nahiz gertuagoko legeen xedea gune pu-



Iruretagoiena eta Fernandez, Kaletxikin dauden traba arkitektonikoak identifikatzen. AIURRI

blikoetan (inguruneetan, espazio publikoetan, eraikinetan...) irisgarritasuna bermatzea dela aitortzen da; hau da, pertsona guztiek, eta, batez ere, zailtasunak dituztenek, gune publikoak era autonomoan erabil eta goza ditzaten. Horrexegatik, botere publikoei dagokie eskubide horiek bermatzea”.

Nahiz eta formalizatu gabeko elkarte baten funtzionamendua eduki, argi izan zuten hasieratik zein zen beren helburua eta zein beren metodologia helburu horretara iristeko: mugikortasuna zailtzen dituzten oztopoak identifikatzeko makina bat argazki atera, eta txosten marduletan itsatsi horiek, behar diren azalpenak eta irtenbideak emanez batera.

Jauregiren hitzetan, “Xumeak izan ziren gure lehenbiziko planteamenduak eta proposamenak: batik bat, ibilbide zehatz batzuk egitea zailtzen zuten oztopoak kentzea edo zebra-bideak behe-ratzea (herrigunekoak nahiz auzoetakoak, Sorabilla, Goiburu, Alejandro Kalonge, Leizotz...)... Aldi berean, ibilbideak garatzeko nahitaezkoak ikusten diren hainbat galtzada, espaloi, lotura, pasabide, eta abarri buruzko ekin-tzak ere planteatu genituen (Mimendi arrapala, Txistokiko bus inguruko espaloia, Txistokitik Bazkardorainoko bidea, kale Nagusia eta Dr. Huizi-udaletxea...)”.

Nolanahi ere, eskakizun xumeetatik harago joan da Ackzesible Andoain Irisgarria elkarte, urteen poderioz, Irure-

tagoienak zehaztu duenez, “proposamenen arloa dibertsifikatzen joan zaigu, eta zebra-bideez gain, jorratu ditugu udal eraikinetan irtenbentzioak egiten hastea (sarbidea, komunikazio bertikala, komun egokitu-ua...) edota herriko komertzioen diagnosia egitea, gure bizimodua era autonomo batean bizitzea erraztuko liguketenak”.

Atzera begira, balorazio baikorra

Hamar urteko ibilbidea egin eta gero, atzera begira jarri, eta mugikortasunean zer hobetu den baloratzeko moduan direla aitortzen dute Ackzesible elkar-teko kideek.

Udala da mugikortasuna hobetzeko neurriak jar zitzakeen gertueneko erakundea, eta alde horretatik, baikorra eta eman-korra gertatu dela harekin urte hauetan edukitako harremana. “Bilerak maiztasunez egin izan ditugu politikoekin nahiz teknikariek, eta arina izan da guztia; elkarlanaren fruituak begi bistakoak direla iruditzen zaigu”, Jauregik adierazi duenez.

Nabarmen duenez, besteak beste, “oinezkoen sarea osatzen duten ibilbideetako praktikagarritasuna bermaturik dago, biz-

pahiru pasagune salbu. Udal eta beste eraikinei dagokionez, orohar, egokitze jarduketak egin diren eraikinetan bermatua geratu da mugikortasuna (Herriko etxea, Aita Larramendi Haur Hezkuntza, Olabide, Olagain, Allurralde, Arrate, Pagamendiko hilerria...); merkataritzan, Andoaingo komertzioen diagnosia egiteko hitzarmena sinatua dago (oraindik gauzatzeko bada-gore ere); garraioen arloan, markesina gehienen irisgarritasuna nabarmen hobetu da, batean ezik. Bestalde, 2008ko Udalaren Irisgarritasun Plangintza zaharkiturik geratu denez, Udalak Ingenia enpresari plangintza eguneratzea eskatu zion 2019an”.

Epe luzerako proposamen berriak

Orain arteko proposamen sortari jarraipena eman asmoz, eta Ingeniak egindako Plangintza oinarritzat hartuta, Ackzesible elkarteak proposamenez jositako txosten berria aurkeztu zion Udalarari 2020an. Hiru ataletan banatutako proposamena, hain zuzen: bide publikoak, eraikinak eta garraioak.

Jauregi deskribatu du proposamen sorta: “Bide publikoen arloan, ibilbideetako eta auzoetako zebra-bideak (koskak eta baldosak) erabat egokitzen jarrai dezala eskatu genion; asko direnez, lehentasuna-ordena ezarri genuen. Galtzada eta espaloietan, esku-hartze bertikalean eta gune libreetan jarduera guztiak egiteko eskatu ostean,

bi eranskin osatu genituen, esku-hartze nagusiak eta esku-hartze txikiak izenekoak”.

Esku-hartze nagusien atalean, batetik, oinezkoen ibilbideak “ber-rurbanizatzea” proposatu zuten (Miranda pasealekua, Leizaur parkea, Txistoki pasealekua, kale Nagusia, Doctor Huizi-Udaletxe-ko bidea, Alejandro Kalonge, Arrate atzealdea, Gabriel Aresti, Ondarreta, Kale Nagusia-Olazar bidea...). Eta bestetik, mugikortasun bertikalean lanketa berezia egitea: “Gure herria, bere orografia dela eta, oztopoz beteta dago bertikalki mugitu ahal izateko, eta horrek mugikortasunean zailtasun asko sortzen ditu, batez ere pertsona ahulenengan. Hori dela eta, hainbat herrigune aztergai hartzeko eskatu genion Udalarari: hala nola, Kale Nagusia-Kaleberria, Kaletxiki Goikoplaza, N1-Mimendi, Ondarreta-Goikoplaza, Gernika kalea-Agustin Leitz, Kalonge-Mimendi, Olagain auzoa-Bertxin kalea, Doktor Huiziko etxe-taldea...”.

Bide publikoen atalean, azkenik, Ackzesible elkarteak parkeak ditu gogoan “eskuhartze txikia” egiteko orduan. “ia parke guztiek sarbide eta barne-mugikortasun irisgarriak dituztenez, eskatzen dugu jolas-elementuak (fisikoak,

ERAIKINEN ETA GARRAIOEN ATALETAN HAINBAT PROPOSAMEN LUZATU DIZKIOTE UDALARI



Harremanetarako e-posta: ackzesible@gmail.com / Twitter: [@ackzesible](https://twitter.com/ackzesible). ACKZESIBLE

esperientzia sentsorialak, kooperatiboak, sinbolikoak...) pixkana egokitzea, ordezkatzea edota berriak jartzea da, erabat inklusibo eta integratzaileak izan daitezen. Horren adibidetzat jo dezakegu oraindik orain ber-ritutako Aiztondo Parkea”.

Eraikinak eta garraioak

Eraikinen eta garraioen atalean ere hainbat proposamen luzatu dizkio Udalarari Ackzesible elkarteak: “Udal eta bestelako eraikinetan mugikortasuna bertikala konpontzeko eta solairu bakoitzean komun egokituak ezartzeko beharra dago, eta iruditzen zaigu egokiak direla elementu mekanikoak horretarako. Merkataritzan, berriz, Andoaingo denden diagnosiarako Elkartu elkarteak eta Udalak egindako hitzarmena gauzatu beharko litzateke”.

Garraioei begira, markesinak egokitzen segitzea eta aparkaleku erreserbatuen azterketa burutzea eskatzen diote Udalarari.

Bestalde, ohartarazi dute beren proposamenean txertatu dituztela Goiburu, Sorabilla, Leizotz eta Alejandro Kalonge auzuneak, “nahiz eta Udalaren Plangintza-tik kanpo geratu diren”.

Eskakizunen zerrendatik ere, azpimarratzekoak dira honako biak: “egiten diren obra berri guztiek bete ditzatela irisgarritasun irizpide berriak, eta, langile berriak kontrata ditzala Zerbitzuetako Brigadara bideratzeko.



Iruretagoiena, Fernandez, Guirado eta Jauregi, solasean. Laukotearekin osatutako bideo-muntaia, ikusgai dago Aiurri.eus webgunean. AIURRI

Igogailuen aldeko apustua

Ackzesible elkarteak kideek adierazi dutenez, Ingenia enpresak egindako Plangintza berrian txertatuta geratu dira eurek egindako hainbat proposamen, hala nola, oinezkoentzako ibilbideak berrurbanizatzearen edota mugikortasun bertikalaren gainean.

Mugikortasun bertikalaren atalean, Ackzesible elkarteak pozik agertzen da Udalaren Plangintzak hainbat igogailu proposatzen dituelako. “Gaur egun hainbat elementu mekaniko dauden arren, funtsean, eskailera eta arrapala mekanikok dira, eta igogailuren bat edo beste dago. Kontuan izan behar da eskailerrak eta arrapala mekanikoak ez direla unibertsalak. Alegia, ez direla erabilgarriak gehien behar duten pertsonentzat (gurpil-aulkien erabiltzaileak, mugikortasun urriko pertsonak, haurrak kotxetxoetan eramaten dituzten gurasoak, etab.). Beraz, igogailuak elementu mekaniko unibertsal bakarrik direnez, egoki ikusten dugu herrian igogailuak jartzeko Ingeniak egiten duen planteamendua. Jakina, epe luzerako hainbeste igogailu planteatzeak, eta aintzat hartuta horien kostu ekonomikoa, mugikortasun bertikalaren azterketa sakona egiteko premia ikusten da”.

Bidelagun ugari

Udalarekin ez ezik, bestelako harremanak ere egin dituzte

bidean. “Elkartu elkarteari (Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea) laguntza teknikoa eskatu genion, eta elkarkidetza lortu dugu geroztik. Balio handikoa egin zaigu bere ekarpena. Gautenarekin (Autismoaren Espektroko Nahastea duten pertsonen senideen elkarte) edo Salkin herriko dendarien elkartearekin ere badauzkagu harremanak”.

Bestalde, elkarteko kideek, mugikortasuna modu batera edo bestera mugatuta daukaten herriko pertsonengana hurbiltzeko saiakerak egin dituzte urte hauetan, “praktikak erakusten baitigu ikuspegiak, gabeziak, eskaerak proposamenak... diferenteak izan daitezkeela”.

Horrela, nabarmendu dutenez, ikusmen arazoak dituen Juanjo Guirado elkartera batu izanak elkartearen ikuspegia zabaltzea eta aberastea ekarri du. Guiradok berak zehaztu du kalean gutxieneko normaltasun batean ibiltzeko bera bezalakoek ezinbestekoak behar dituzten gutxieneko zenbat baldintza, aulkigurpildunentzat ez bezala: “Guretzat zebra-bide egokituak erabat garrantzitsuak dira; hots,

**ACKZESIBLE
ANDOAIN IRISGARRIA
HERRITAR GEHIAGORI
IREKIA DAGOEN
TALDEA DA**

baldosa marradunak (norabidea finkatzeko) eta baldosa botoidunak (arriskuaz ohartzeko) daukatenak, eta, horiekin batera, semaforoak seinale akustikodunak izatea. Ez digute bizimodua konpontzen noski, izan ere, horiekin ere adi-adi ibili beharra baitaukagu, eta pittin bat despistatuz gero, erabat galduta geratzen baikara. Baina egia da erreferentzia lagungarriak egiten zaizkigula”.

Elkarte irekia

Ackzesible Andoain Irisgarria elkarte, elkarte irekia dela nabarmendu dute bere kide guztiek. “Mugikortasun mugaturen bat daukaten pertsonak nahiz ez daukatenek daukate tokia bertan. Mugikortasunaren ikuspegitik herritar guztiok eskubide berberak eduki ditzaten lan egiteko jaino zen elkarte, eta helburu horren alde ekarpenaren bat egiteko prest legokeen edonork dauzka zabalik ateak”.

Elkarteko kide izateak eta bertan mugikortasun mugatua daukaten pertsonekin hausnarketak, ekimenak, kafe-tertuliak... partekatzeak mesede terapeutikoa eragiten diela aitortu du Oihana Jauregik. “On egiten digu daukagun lagunarteko giroak. Izan ere, ez baita lan samurra onartzea eta barneratzea zurekin daukazun muga fisiko hori; nork bere prozesua egin behar izaten du eta lagungarri egiten zaizkizu holako espazioak. Indarrak ematen dizkizu, buru-

jabe sentitzeko, guretzat egina ez dagoen gizarte batean moldatzen jakiteko, dagozkigun eskubideak eskatzeko eta borrokatzeko...”.

Ikusezintasuna

Gizartea ez dagoela prestatuta mugikortasun murriztuarekin bizi diren pertsonentzat dio Jauregik, eta ideia horretan sakondu nahi izan du Iruretagoienak: “Kalera atera ala ez atera, dilema hori maiz planteatzen zaigu. Izan ere, gainerako pertsonen antzera, guri ere gustatzen zaigu sozializatzea; desiratzen gaudela lagunarteko giroan egiteko, paseoan ibiltzeko, erosketetara irteteko... Baina nahikoa da koska arkitektoniko bat, mugikortasunean traba gainditu ezina zaizuna, edo zenbait pertsonen enpatia gutxiko jarrera, eguna izorratzeko, eta etxera itzuli nahi izateko. Demagun sartzen zarela taberna batean, eta agudo, honi edo hari eskatu beharko diozu pixka bat baztertzeko, aulki hori kentzeko... Egoera horiek gogorak egiten zaizkizu, ez bazaude indartsu une horretan”.

Mugikortasun mugatu daukaten pertsonak, jendartean direnean, beren inguruan, “ikusezintasunaren efektua” sortzen dutela gaineratu du Jauregik; alegia, mugikortasun arazorik ez dutenak agudo detektatzen dituztela, eta hortik aurrera ez ikusiarena bezala egiten zaiela. “Espazio publikoetan-eta, agorafobia sentitzearaino iritsi izan naiz ez gutxitan. Taka-takarekin ibiltzen naiz, handia naiz gorputzez, baina hala eta guztiz ere, existituko ez banu bezala jokatzen dute batzuek. Neu naiz jendeari iskin behar diodana mugitu ahal izateko. Azkenean, modu batera edo bestera, egunerokotasuna irauli egiten zaizu; lagunak desagertzen zaizkizu, eta bakartzen zoaz...”.

Mugikortasun mugatuko pertsonak, bizitzari tinko eutsi nahi badiote, ahalduzko prozesu pertsonal bat egitera behartuta daudela ere adierazi du Jauregik. “Nire kasuan, lau pertsona dauz-

**UDALERRI IRISGARRIA
LORTZEA
HERRITAR GUZTIEN
MESEDERAKO
IZANGO DA**

Ackzesible elkarte

Ackzesible elkartearekin harremanatzeko bideak:

- Kideren batekin zuzenean harremanetan jarrita.
- Korreoa: ackzesible@gmail.com.
- Twitter: @ackzesible.

kat inguruan desgaitasunen bat jasaten dutenak, eta zorionez, elkarbizitzan ez daukagu arazorik. Burujabetze prozesu pertsonal bati esker, ikasi dut naizenarekin eta daukadanarekin zoriontsu bizitzen, eta alde horretatik, zer pentsatua ematen didate askok, osasunez ondo ibili arren ez baitakite daukatena baloratzen, ez baitakite buruarekin konforme egoten”.

Gizarteari onura dakarkion ekimena

Mugikortasun mugatua daukaten pertsonak bizimodua duintasunez egin dezaten bideratzen ditu ahaleginak Ackzesible elkarteak. Gizartea errealitate hori ulertu eta onartzera edo toleratzera iristen den arren, elkarteko kideek uste dute hortik harantzagoko hausnarketa egitea falta zaiola. Alegia, kontzientzia hartu beharko lukeela, aldarrikapena ez dela bakan batzuen interesekoa, guztiona baizik. Guztioi eragiten digula irisgarritasunak.

Irigo Iruretagoienak hartu du hitza, mezu zuzena zabaltzeko: “goiz ala berandu, pertsona guztiek, edo ia guztiek, jasango dugu desgaitasunen bat. Jaiotzez, gaixotasun batek eraginda, edota, segundo gutxitan gerta litekeen istripuren batek eraginda, mugikortasunean mugatuta sentituko gara batzuk. Eta bizitzan zorigaiztoko ezbeharrak jasaten ez duten gainerakoek ere, ez bada 40 urterekin, bada, 60 nahiz 80 urterekin, mugatu egingo zaie mugitzeko ahalmena. Horrenbestez, guk orain aldarrikatzen duguna kaleak, espaloioak, zebra-bideak, paseo-bideak, eraikin publikoak, komertzioak, kultur aretoak... guztiontzat irisgarriak izan daitezten, ez dela gu bezalakoek mesederako bakarrik izango, denek mesederako baizik”.



Udaleko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak, aurkezpen ekitaldian. AIURRI

Jendaurrean aurkeztu dute energia komunitatea

Energia berriztagarrien aldeko hautua egin nahi du Urnietako Udalak, tokiko energia komunitatea sortzeko asmoz hasitako bidean. Jendaurreko aurkezpena egin zuten astelehenean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen sailarekin batera

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

TEK Urnieta izeneko egitasmoaren bidez, 213 etxeri nahiz merkatalgune txikiri, faktura elektrikoan % 25eko aurrezpena bermatzea espero da. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuarekin batera ondu du proiektua Urnietako Udalak: 30.000 euroko inbertsioa egingo du horretarako lehenak, eta, bigarrenak, aldiz, Sarobe Arte Eszenikoen Zentroko eta udal-pilotalekuko estalkiak doan lagako ditu, instalazio fotovoltaikoa

bertan txertatzeko. Astelehen eguerdian egin zen proposamenaren aurkezpena prentsaren aurrean, udaletxeko areto nagusian. Bertan izan ziren Urnietako Jorge Segurado herriko alkatea zein Ainara de Miguel eta

HERRITARREN PARTE-HARTZE AKTIBOA BILATZEA DU XEDE PROIEKTUAK

Herme Gonzalez oposizioko bi alderdietako ordezkariak, Jose Ignacio Asensio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako diputatua eta Juan Diego Edinor-eko kontseilari delegatua. Bide berean, jendaurreko aurkezpena egin zuten iragan asteazken arratsaldean, Lekaio Kultur etxean, aurrez aurre, proiektuaren nondik norakoak azaldu eta herritarren duda oro erantzun ahal izateko. Juan Diego Edinorreko ordezkariak eman zuen, besteak beste,

ekimenaren argazki orokorra: orotara, 315 plaka egongo dira, eta, horien bidez, gutxi gorabehera, 141 kW-ko potentzia eta energia % 100 berriztagarria nahiz deskarbonizatua eskainiko zaie instalazioetatik bi kilometroko erradioan dauden etxeei. Urnietako Udalak adierazi duenez, epe luzera, eta, Nazio Batuen 2030erako garapen jasangarriarako helburuak aintzat hartuta, “instalazio horiek 4.500 MWh zero kilometroko energia deskarbonizatua sortuko dute, eta atmosferara 945 tona CO2 baino gehiago isurtzea aurreztuko dute”. Udalerrrian ia 3.525 zuhaitz landatzea izango litzateke horren baliokidea, 25 urtean karbono-hustutegi gisa jardunik.

Autonomia ardatz

Trantsizio energetikoan, herri-tarren parte-hartze aktiboa bilatzea ere badu xede, Asensioaren ustez, komunitatea eta kultura energetiko berriztatua sortzeko asmoz: eredu tradizionalen baino ahalmen “askoz handiagoa eskuratzen dute herritarrek, erabakitze, aurrezteko eta ezagutzeko”. Azaldu duenez, urteko familiek 500 euro inguru aurreztu ditzakete. Hala, Seguradok gehitu du urnietarrak izango direla protagonista, eta beraiek hartuko dituztela komunitatearen gaineko erabakiak. Harekin bat da Edinorreko kidea, eta ziklo bat irekitzen denaren iritzia da, herriaren eta ingurumenaren jasangarritasunera bidean.

KOMUNITATEAREN GAINEN ERABAKI-AHALMENA HERRITARREN ESKU EGONGO DA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuaren datuen arabera, 2023ko lehen sei hilabeteak hasi ostean, “Gipuzkoako 36 udalerrian egotea eta 5.000 etxe eta saltoki txikitara iristea espero dugu”. Hari horri tiraka, Asensio adierazi du, hein batean, erakunde publikoen esku ere badagoela horrelako proposamenen bideragarritasunaren bermea. Paradigma aldaketa dakar proiektuak, politikariaren iritziz, eta berebizikoa iruditzen zaio auto-kontsumo partekatua nabarmen-tzea: “TEKen bidez, energiaren demokratizazioarako aurrerapausoak ematen dira, baita erregai fosilekiko mendekotasun txikiagoko kulturaren alde ere, era efiziente, bidezko eta jasangarriago baterantz; horrek ekarriko du inguru honetan bizi diren pertsonek bizi kalitatea hobetzea”.

Izen-ematea

Guztiz librea da proiektuan sartzea edo bertatik irtetzea, tekurnieta.eus web orrialdean izena emanda (Udalaren atari digitalaren bitartez ere sartu daiteke). Bertan ere informazio baliotsua aurki dezakete interesdunek, Edinorreko kidearen hitzetan: “150 euroko kostua dauka TEK Urnietaren izen-emate kuotak, eta, behin plakak ipinita, komunitateak modu asanblearioan erabakiko du zenbat ordainduko duen hila-betean, betiere sekula 9 euro baino gehiagoko langa pasa gabe”.

EGITASMOAREKIN BAT EGIN NAHI DUENAK URNIETA.EUS WEBGUNETIK IZENA EMAN DEZAKE



Urnietako
udala

KOMUNITATEA

HURRIA-SAHARA ANDOAIN

Sahararen aldeko elikagai bilketa

Andoaingo herritarrei:

Data hauetan, urtero Andoaingo Hurria Sahara elkarteak herritarrengana jo izan ohi du "Elikatu itxaropena" sahararen aldeko karabanen parte hartzeko gonbidapena egiteko.

2021 urteko pandemia, osasun-larrialdi egoeran, ez zen posible izan ordura arte ohikoa zen elikagai bilketa egitea, baina 2022 urtean herritarrek berriz ere eskuzabaltasunez erantzun zuten eta "Andoaindik" 7500 kilo elikagai jaso ziren errefuxiatuen kanpamentuetara bidaltzeko. Kopuru honi Hurria Saharak erositako elikagaiei gehitu eta andoaindar bakoitzeko kilo bat janari bidaltzeko helburua bete genuen.

Azken urteak gogorak izan dira Saharako herritarrentzat: soilik, saharauiarren borondate sendo eta antolaketari esker lortu zuten pandemiari aurre egitea eta nazioartean sortu diren krisi anitzek ere Saharako errefuxiatuen kanpamentuetara iristen den laguntza murriztea ekarri dute. Egoera larri honi gehitzen zaio Marokoko Gobernuak 1991 urtetik indarrean zegoen su etena hautsi izana: lurraldea banatzen duen harresi militarren inguruan 2020ko urritik gerra ekintza ugari



Urteak dira Sahararen aldeko kanpaina egiten dela, Andoainen. AIURRI

egon dira, baina gainera Marokok hegazkinak eta dronak erabili ditu, soldadu saharai eta zibilen artean biktimak eraginez. Testuinguru honetan Espainiako gobernuak Saharako etorkizuna Marokoren planteamendu autonomistetara mugatzeak ere gatazka gehiago korapilatzea eragiten du.

Egoera larri honetan, 2023an mediterraneo itsasoa zeharkatzeko logistika arazoak ere sortu dira, eta Saharako errefuxiatuen kanpamentuetara zuzentzen zen janari bilketaren kopurua garraio baldintza berrietara egokitu behar izan da: ondorioz aurten, soilik, ikastetxeen bidez egingo da elikagai bilketa, Hurria Sahara eta Andoaingo Udalaren arteko lankidetzan, baina ez gara ohi bezala

denda eta supermerkatuetan egongo. Seme alabak ikastetxeetan ez dituztenek elikagai karabanarentzako ekarpenen bat egin nahiko balute Laboral Kutxako 2095 5022 18 1060843686 kontu korrontearen bidez egin dezakete eta Hurria Saharak diru hori zuzenean elikagaiak erosteko baliatuko du.

Idatzi honen bidez, Andoaingo Udalaren, ikastetxeen eta herritarren eskuzabaltasuna eskertu nahi dugu, eta Sahararen alde lanean jarraitzeko gure konpromisoa berretsi.

"ANDOAINEN, AURTEN, SOILIK IKASTETXEEN BIDEZ EGINGO DA ELIKAGAI BILKETA"



TWITTER @EVELYNJONSON




Edukiontzien erreketak

Azken hilabeteotako joerari eutsiz, edukiontzien erreketak berria izan da Andoainen. Azkena Doktor Huitzin izan zen, ostiraletik larunbaterako gauean. Goizaldeko 05:00ak aldera piztu zen, edo zuten, sutea. Aita Larramendi

ikastolako eraikinaren eta Mimendiko igogailuaren tartean dauden edukiontziei su eman zieten. Bertako bizilagun batek zabaldu zuen bideoan ikus daitekeenez, sutea handi samarra izan zen. Suteak kalte materialak eragin ohi ditu, ez bakarrik edukiontzi eta espaloitan, baita inguruko ondarean ere. Bada sua baino arriskutsuagoa gerta daitekeen elementurik: kea. Sutea piztu den tokitik gertu bizi eta ke ugari arnastuz gero, bizia bera arriskuan egon daiteke.

Txotx 2023
GARAIA GARAIA: "TXOTX!"

Elkarrizketak, albisteak... Atal berezia webgunean
www.aiurri.eus



Okm:
batzen gaituen
distantzia

KOMUNITATEA

PODEMOS AHAL DUGU ANDOAIN

Urteko lehen topaketa irekia, herritarrekin



Kotoi elkartean bilkura egin zuten Podemoseko kideek. AIURRI

Aurreko larunbatean, Andoaingo Ahal Duguk hauteskunde urteari hasiera eman zion, batzar ireki batekin. Militanteak, izena emandakoak eta jarraitzaileak Kotoi elkarte gastronomikora hurbildu ziren maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan alderdiaren zerrenda osatuko duen taldea ezagutzera.

Ekitaldian, Pepe Iparraguirre Andoaingo Udal hautagaiak parte hartu zuen, eta, horri esker, interesatuek udal-taldearen proiekturako beren galderak eta proposamenak partekatu zituzten. Teresa Santana egungo zinegotzia ere bertan izan zen, besteak beste. Topaketan, bertaratutakoek oso harrera ona izan zuten, eta hautagaiak nabarmendu zuenez, "elkargune horien garrantzia, zirkuluaren jarduera politikoaz haratago, gure bizilagunekin harremanetan jartzea dakartelako, eta ilusioa berritzeko balio dutelako, telelanean emandako urte zail

hauen ondoren, kontaktu pertsonalik gabe". Gaineratu zuenez, hauteskunde-hitzorduari "erronka honek dakarren erantzukizunarekin ekingo dio, baina jakin badakigu militanteen eta izena emandakoen babesa duela eta andoaindarren beharrak eta ametsak islatzen dituen programa bat idazten lagunduko duela".

Proposamenen artean, honako hauek nabarmentzen dira: N-1 eta A-15 errepideen arteko loturari irtenbide egokia emateko lanean jarraitzea, C-II aukera erabat baztertuz, energia berriztagarrien sustapena, aparkaleku-arazoek konponbideak bilatzea eta alokairu sozialeko erregimeneko etxebizitzaren eraikuntza bultzatzea.

Hori izan zen Ahal Duguk 2023an egin duen lehen ekitaldia. Urtea funtsezkoa izango da Iparraguirre hautagaiak bere proiektua jarraitzaileekin eta militantziarekin sendotzeko.

PROTAGONISTA

"Gogotsu ari gara kantu erronda antolatzen"

ANE JALON MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNeko LEHENDAKARIA

Otsailaren 4a iristean, Santa Eskean aritzen den taldearen zain izan ohi da Andoaingo euskaltzale ugari. Garai bateko kantu erronda eta afaria berreskuratuko da, aurtengoan

Erredakzioa ANDOAIN

Andoainen Santa Eskean kantuan ateratzeko ohitura Larramendi Bazkunari lotuta dago. Nola doaz aurtengo prestakuntza lanak?

Aurtengo kantu-erronda antolatuta dugu, jada. Denborarekin hasi ginen erabakiak hartzen eta guztia gogoz prestatzen. Entseguak, datorren urtarilaren 30ean eta otsailaren 1ean izango dira arratsaldeko 20:00etan Anbrosia Olabide Eguneke Egoitzan.

Kantari ateratzeko otsailaren 4an, larunbata, arratsaldeko 18:00etan Larramendi Bazkunaren egoitzaren aurrean (Doktor Huizi, 15) bilduko gara. Gainera, azken bi urtetan ez bezala, aurtengoan kantu-erronda amaitzean ohitura den afaria izango dugu Ontza Elkartean.

Aurtengoan kantu-erronda bere osotasunean egiteko aukera izango da. Pozik egoteko motiboa bada, ezta?

Egia esan, aurtengo erronda berezia izango da guztiontzat. Covid19ak ekarritako zailtasun eta debeku guztiak alde batera utzita ospatuko badugu ere aurtengo Santa Eskea, 2023ko urtarilaren 4an joan zitzaigun Arantxa Iartzaren hutsunea sumatuko dugu denok. 30 urte luze hauetan Santa Agedaren tradizioaren alde lan egindako emakumea izateaz gain, egun horretan inoiz ez zuen kale egiten. Horregatik, aurtengo "Santa Yagedaren lagun" izendatu dugu Arantxa, egindako lan guztia eta emandako laguntza eskertzeko. Ziur naiz oso presente izango dugula denok aurtengoan, eta baita aurrerantzean ere.

Liburuxka bat banatuko duzue, parte-hartzaileen artean, kantuan ari zeko.

Orain arte, otsailaren 4an koplak jasotzen zituzten askotariko paper eta esku-orriak banatzen genituen. Hauek azkenean, ur-



Ane Jalon eta Garazi Kamio, iaz. Aurtengo kantari ariko dira, musukorik gabe. AIURRI

tetik urtera galdu egiten zirenen edota zakarrontzian bukatzen zuten. Horregatik, aurtengoan berrikuntza batekin gatoz. Kantu errondan abesten ditugun koplak jasotzen dituen liburuxka atera dugu, denok eroso eta gogoz abesteko asmoz.

Eta, bestalde, Lekukotzak sailean Otso Beltzaren argitalpena prest du Larramendi Bazkunak. Zer aurretatu daiteke?

Orain arte, Otso Beltzaren koplak benetako otso baten gainean zirela uste bagenuen ere, Garazi

Kamiok zalantza handiak izan ditu beti gai honen gainean. Jakinmin horrek arakatzera eraman zuen eta hezur haragizko pertsona bati eskainiak direla jakin zuen. Gainera, koplen hurrenkeran ere arazoren bat zegoela uste zuen eta benetakoa topatu zuen XX.mende hasierako liburu batean.

Gau Beltza, Euskaraldia, Santa Ageda bezpera... Euskararen alde kalean eragiteko apustua indartzen ari da Bazkuna. Pozik orain artekoarekin?

Hori izan da azken bi urteetako Bazkunaren erronka nagusieta-ko bat, eta bagoaz pausoak ematen. Egia esan, oso pozik gaude burutzen ari garen ekimen hauekin guztiekin. Momentu honetan, Bazkunaren helburu nagusieta-ko bat herriratzea da, herriarekin eta herriarentzat lan egitea. Eta horretan jardungo dugu aurrerantzean ere: euskaraz lanean, euskaraz biziz eta euskaraz disfrutatuz.

"AURTEN, ARANTXA IARTZAREN HUTSUNEA SUMATUKO DUGU DENOK"



andoaINDARRA
euskaraz

www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



• Iritzia
• Komunitatea



Ekitaldia hasita ikusle gehiago hurbildu zen, Bastero Kulturguneko ekitaldi-aretoa betetzera. AIURRI

Plan Orokorra oinarri duen dekalogoia aurkeztu dute

C2ak kaltetutakoen plataformak jendetza erakartzeko gaitasuna izaten jarraitzen du, Andoaingo gizarte-bizitzan aurkeztu zirenetik lau hilabete igaro direnean. Erronka berria aurkeztu dute, helburu lorgarrien dekalogoia. Babesak jasotzeari ekin diote, dagoeneko

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Irailean Iñaki Perez de Eulate andoaindar askoren ahotan zegoen, hura izan baitzen C2 egitasmoak kaltetuko lituzkeen hainbat pertsonen "artzain" eta bozeramailea.

Plataforma modura sortu eta lau hilabetera, helburu lorgarrien dekalogoia aurkeztu zuten Basteron. Urtarrilaren 21ean izan zen, larunbatarekin, eta orduko horretan mugimenduaren sustatzaile ezagunenak bigarren

planoan parte hartu zuen. Protagonismoa hartu zutenak C2ak zuzen-zuzenean eragiten dien herritarrak eta herri eragileak izan zirelako: Mimendiko edo Allurralde aldeko bizilagunak, eta baita kirol taldea, ikastola,

merkatarien elkartea gertutik bizi duten eragileak... Irudi indartsu bat zabaldu nahi zuten: C2ak gizarte-bizitzan eragin zuzena izango du. Hortaz, balizko kaltetuak igo zituzten oholatza gainera. Zehatza, zuzena, arina izan zen ekitaldia. Han esandakoak eskuorri batean bildu dituzte, eta, datozen egunetan, herriko buzoietan banatuko dute bana. Ehunka sinadura bildu nahi dituzte, "Andoain bizigarri" baten alde. Eta horretarako, hasieratik defendatu dutenez, Hiri Antolamendurako Plan Orokorren garapena gauzatzea defendatzen dute. Tokikotik eutsi nahi diote, udalaz gaindiko erakundeak aurrera eraman nahi duen egitasmoaren kontrapisu modura.

Dekalogoia irakurrita, bizigune berri baterako proposamenak ugari dira. Antzekoak irakurtzera ohituta gaude hauteskondeak iristen direnean, botoen ehizan murgiltzen diren alderdi politiko ezberdinen eskutik. Kanpaina laster hasiko da. Hirigintza eta gizarte alorreko etorkizuneko hainbat gako aurkeztu dituztelako, plataformaren egitasmo berriena saihestezina izango da Andoaingo giro politikoan.

IRITZIA

JON ANDER UBEDA KAZETARIA

Tangibleak

"Landu ditzagun *tangibleak*, errealitateak, konponbide posibleak lortzeko. Ez dago konponbide perfekturik. Andoaindarren bizi-kalitatea hobetzeko akordiorik onena lortzen saiatuko gara". Adierazpen hori Garcia Chueca PSE-EEko batzarkidearena da, abenduan Batzar Nagusietan EH Bilduri eta Elkarrekin Podemosi C2-ari buruzko mozioan erantzun ziena.

Egun hartatik gogoan iltzatuta geratu zait *tangibleak* adiera. Eta, antza, ez naiz bakarra. Andoaingo plataformak hitz horren gainean eraiki baitu dekalogoia.

Hitza jolas.

Alegazioen bidea defendatu zuen PSE-EEK, eztabaida-saio hartan. Batzar berean, EAJ-PNVk honakoa adierazi zuen: "Foru Aldundia lantzen ari den proiektua ona -onena- eta egokia da trafikoaren arazoak konpontzeko. Eta ona -onena-, baita andoaindarrentzat ere".

EAJ-PNVren adierazpena hain argia izanik, zer proposatzen du PSE-EE gobernukideak? *Real politik-a*, dagoenetik ekitea. Eta zer da, mahai gainean, dagoena? Bada, dagoena ezin da modu singularrean azaldu.

Tangiblea, lorgarria, lantzeko markoa ezinbestekoa delako. Eta, egun, nagusiki bi marko argi daude. Foru Aldundiko agintaritza gorenak C2 egitasmoa mahai gainean jarri du, eta horri eusten dio.

C2ak kaltetutakoen plataformak, bere aldetik, Andoainen indarrean dagoen Hiri Antolamendurako Plan Orokorra defendatzen du. Plataformak *tangibleak* diren helburu lorgarriak aurkeztu dizkie herritarrei, eta baita klase politikoari ere. Hamar, denera. Guztiak Plan Orokorretik ateratakoak.

Tangibleak hizpide sozialistek, *tangibleak* mintzagai plataformako ideologok. Hitza jolas, gakoa hitza ekintza bihurtzeko markoan dago.


Muina hortxe dago.



Lurdes Ezkurra. AIURRI




Salva Parada. AIURRI



Andoni Etxezarreta. ANDOAIN



Maitane Lopez de Munain. AIURRI



Patxi Aznar. AIURRI



Ainhoa Aiertza eta Iñaki Perez de Eulate. AIURRI



Andoain bizirik, logo berria. AIURRI



Leire Garcia eta Aitor Aizpurua. AIURRI

'Helburu betegarrien dekalogo'

Aurkezpena korala izan zen, hainbat eragilek eta herritarrek aurkeztu zutena. "Andoain bizigarri" baten aldeko apustua egin nahi du plataformak.

Dekalogo

1. Mimendi, A Calonge, Bordaberri Industriegunea, Aita Larramendi Ikastola, Makaldegi, Miranda, Karrika, Buruntza eta Errotagain/Sorabilla bezalako eremuetan N1 errepidearen egungo trazadurak eragindako afekzio akustiko larriak konpontzeko proiektua.
2. Mimendi, Bordaberri Industriegunea, Aita Larramendi Ikastola, Itsasmendi, Allurralde Berri eta antzeko eremuetan afekzio atmosferiko larriak konpontzeko proiektu bat.
3. Egungo trazadura tokiko bide-bulebar gisa berrerailetea ahalbidetuko duen proiektua, eta andoaindar gazteentzat etxebizitza publikoa eskainiko duten hirigintza garapenak ahalbidetzea.
4. Proiektu horrek merkataritza-hirigune bat hornitzeaz gain (Aita Larramendi, Zumea, Kaleberria eta Makaldegia kaleak) eskola-umeak beren ikastetxeetara (Aita Larramendi, La Salle-Berrozpe, Ondarreta, Leizaran)

- modu seguruan joateko ibilbideak sortzeko aukera emango duten espazioak prestatuko ditu.
5. Proiektu horren bidez, egungo trazaduraren espazioak birsortu eta berrerabili ahal izango dira, energia garbiak ekoizteko eta Oria eta Leizaran ibaien balizko ur-goraldien aurrean urpean gera daitezkeen berdegune bihurtzeko.
 6. Proiektu horrek herri barneko trafikoak egungo trazaduran aurreikusitako herri bidera kanporatuko ditu, eta zenbait kaleren funtzionaltasuna berrezartzea ahalbidetuko du, Basterotik Goikoplaza eta Kaletxikira bitarteko mugikortasun bertikala ahalbidetzeko.
 7. Elizondo plaza, Arrate plaza, Nafarroa plaza, Kaletxiki plaza eta Bazkardo plaza bezalako eremuak pertsonentzat berreskuratzeko herri barneko trafikoak birbanatzea ahalbidetuko duen proiektu bat, horretarako beharrezko aparkalekuak sortuz xede hori izango duten espazioetan.

"ANDOAIN BIZIRIK-NUEVO ANDOAIN" IZENA DU PLATAFORMAK AURKEZTU DUEN KANPAINA BERRIA



Postontzi horietan aurkeztu beharko da sinadura. AIURRI

8. Industria-garapenak bultzatuko dituen proiektua. Horretarako, hiri-bilbidearekin eta bi norabideetan hiri- bideetara sartzeko eta irteteko sarbide zuzenekin poligono atseginak egiteko aukera emango du.
9. Egungo landa-eremuak babestea ahalbidetuko duen proiektua, gaur egun bertan egiten diren nekazaritza-jarduerak egiten jarraitu ahal izateko eta Andoaingo elikadura-burujabetasuna bultzatzeko.
10. Azpikola bezalako espazio degradatuak birsortzeko obretako hondakinak berrerabiliko dituen

proiektua, Andoainen sortutako karbono-isurien eragina murrizteko.

Eskuorria

Etxe guztietara iritsiko da eskuorria, eta sinadura eman nahi dionak orria aurkezteko hainbat toki ditu aukeran: Karrikako Coviran, Gorostidi burdindegia, Stop liburu-denda eta Telletxea janari-denda. Sinadura bilketa martxoaren 5a bitarte luzatuko da, eta iragarri zutenaz auzoz auzo ere sinadurak biltzen ibiliko dira. Behin sinadura guztiak bilduta, Andoainen hasi eta Europa bitarteko erakunde ezberdinetara igorriko dituzte.



Pou Anaiek Fitz Roy mendiari lotutako argibide baliagarriak eman dituzte, egunotan, sareetan. Kokapena eta gertaera testuinguruan jartzeko lagungarriak. Amaia urnietarra ezagun zuten, eta, haren balioa nabarmentzeaz gain, hitz politikak eskaini zizkieten. **POU ANAIK**

Amaia Agirre Gonzalez gogoan

Ostiral iluntzean iritsi zen ezbeharraren albistea, Urnietaren eta euskal mendizaleen tristorarako. Urnietan jaioa, lana eta mendizaleatasuna sorterritik urrun garatu zituen. Ezbeharrak agerian utzi du maila handiko kirolaria zela Agirre



EL PERIODICO DE ARAGON

Erredakzioa URNIETA

Goibel eta bihotza uzkiurtuta iritsi zen asteburura Urnieta joan den astean, baita Euskal Herria zein mendizale komunitate osoa ere. Ezusteko desatsagina eragin zuen Amaia Agirre alpinista urnietarraren eta haren lagun Iker Bilbao durangararren desagertzea. Fitz Roy mendia eskalatu ostean izan zuten istripua, elur-jausi batek harrapatu ostean. Josu Linazak eman zuen abisua, haiekin batera zegoen onik ateratako espedizioa kideak. Bada, larun-

batean bertan, desagertu eta 48 ordu inguru igarota, bertan behera utzi zuen El Chaltengo Sorospen Batzordeak bi kideen bilaketa eta erreskatea, beren hitzetan, sortu zitezkeen arriskuak medio. Hala, asteari eki-tearekin batera ziurtatu zuen

**ESPAINIAKO
FEDERAZIOKO
EMAKUMEZKOEN
ALPINISMO-TALDEARI
LOTUTA ZEGOEN**

Argentinako Gobernuak bi mendizaleen heriotza.

Amaia, gomutan

Urnietarra, jaiotzez, eta Egape Ikastolan lehen pausoak eginda, azkar baino lehen joan zen Ara-goiko mendi-lerroetara bizitzera, Zaragozako Unibertsitatean medikuntza ikasi ondoren. Harrezkero, beti egon zen emakumezkoen alpinismo-taldeari lotuta, Espainiako Mendi Kirol eta Eskalada Federazioak nabarmendu duenez: besteak beste, 2021ean, expedizioa mediku izan zen 6.257 metroko garaiera duen Chekigo (Nepal) mendia tontorreratzean, hura igotzeko, bide berria ireki ondoren. Osasungintzari buruz zuen jakintzaz baliatuta, gainera, uneoro kolaboratu zuen Federazioan baliabide medikoei, baita goi-mendiko aholkularitzari dagokionez ere: botika-kutxak egitean, expedizioa osasun-neurri prebentiboetan, altuera-gaitzarekin, izozteekin...

Eskarmentu luzeko mendizalea zen Amaia, eta makina bat bidezidor, horma eta gailur dastatu zituen bere ibilbidean: tartean, Grandes Jorasses mendia-aren sabaiera ailegatu zen Gorucho Marx bidean barrena, dozena bat eskalada-bide poltsikoratu zituen Jordanian eta Saudi Arabian, "Eternal Flame" bidetik igo zuen Pakistango Nameless Tower, baita ia zerua eskuekin ukitu ere Karakorumeko tontor garaietan.

Doluminez, babesez eta indarrez betetako hitzak bidali dizkie Espainiako Mendi Kirol eta Eskalada Federazioak, Amaia-aren eta Ikeren senideei nahiz lagunei: "Alpinistarik onenetakoa zen Amaia, taldearen funtsezko zutabea, eta, batez ere, mendia berak bezala maitatzea amesten duten emakume eta neska askorentzat erreferente", azaldu du Alberto Ayora Federazioko presidentek: "Bere oroitzapena gelditzen zaigu, bere konpromisoa, eta hainbeste maite zituen mendiak maitatzen, babesten, gozatzen eta zaintzen jarraituko dugu".

**MAKINA BAT
BIDEZIDOR, HORMA
ETA GAILUR DASTATU
ZITUEN BERE
IBILBIDEAN**

Elkartasun mezuak ezbeharra gertatu zenetik



WIKIPEDIA

Elkartasun mezu ugari zabaldu dira sareetan, egunotan.

Zanpatuz mendi elkarte

"Egun tristeak urnietarrentzat eta oro har mendizaleentzat. Amaia Agirre urnietarra eta Iker Bilbao durangarra elur-jausi batek harrapatu zituen atzoko egunez Patagoniako Fitz Roy mendia eskalatzen ari zirela. Besarkada estu bat senideei eta adiskideei".

Pou anaiak

"Diziplina guztietan nagusi zen, eta publiko zabalarentzat ohar-kabea pasatzen bazen ere, horretan gabiltzanok bagenekien alpinista handi baten aurrean geundela. Agur eta ohore Amaia eta Iker".

Urnietako Udala

"Urnietako Udalak bere atseka-bea helarazten die Agirrerren senide eta lagunei zorigaitzoko gertaera honen aurrean. Aldi berean, babesa eta maitasuna erakutsi nahi dizkie une zail hauetan, eta behar duten laguntza eskaintzen die".

Iñigo Urkullu lehendakaria

"Zoritarreko istripu batek Patagonian lurperatu ditu Amaia Agirrerren eta Iker Bilbaoren gorpuak. Bizitza galdu dute hainbeste maite zituzten mendiak igotzen ari zirela. Samina nagusitzen den une hauetan, euskal gizartearen izenean, baita neurean ere, doluminik zintzoenak agertu nahi dizkiet haien senitartekoei, lagunei eta mendizale guztiei. Goian beude!".

GUTUNA

FEDME ALPINISMOKO EMAKUMEZKOEN TALDEA

Erreferente bat



Esker-eskuin: Miriam Marco, Ruth Fornos, Maialen Rojo, Julia Casanovas, Amaia Agirre eta Amaia Segurola. FEDME

Indarra, lasaitasuna, determinazioa, alaitasuna, abnegazioa, malgutasuna, adimena, dira Amaiairen ezaugarri ugarietako batzuk. Edonork bere taldean izan nahiko lituzkeen gerrariaren ezaugarriak. Edozein egoeratan, lankideen alde dena emateko prest. Mendiak bizi eta maite ditugunok badakigu batzuetan naturak gudu ezinezkoak antolatzen dituela. Zuk aspaldi irabazi zenuen, libre, eta, zure balioekin bat

etorritz, zure pasioari eta jendeari lotzea erabaki zenuenean. Guretzat, Amaia Agirre inspirazio iturri bat da, erreferente bat, lagun bat, lider bat. Mendia zure zati batekin geratu da, eta gu irakatsi diguzun guztiarekin geratu gara. Orain, egiten dugun urrats bakoitzean, eta, proposatzen dugun erronka bakoitzean, gure bihotzean egongo zara. Amaia, garaiezina zara eta beti lagunduko diguzu bidea irekitzen. Maite zaitugu.



AIURRI

Minutuko isilunea Ondarretan

Minutu bateko isilunea eginez, Ondarretako irakasle zein irakasle ohiek, gurasoek eta ikasleek elkartasunik sentikorra helarazi nahi izan zieten ikastetxean bertan urtetan irakasle izan zen Belen Gonzalez Amaia Agirreren amari eta bere familiari. Astelehen arratsaldean gertutasunez betetako keinua egin zuten, bizi duten garai zail hauetan.

IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Bizitza eta heriotza

Ez daukat kontsolamendu hitzik Joxe Mari aita eta Belen amarentzat; Agirre-Gonzalez sendiarentzat. Hemen idatzi ditudanak ez dute euren samina apalduko. Heriotza halakoxea da, eta gizakiok ez gaude heriotzari aurre egiteko prest. Klik bat gertatzen da, eta akabo, ez dago bueltarik: “Heriotzak bizitzaz dugun ikuspegi perfektua hausten du. Heriotzak ez du zentzurik, begiratzen diozun begietatik begiratuta ere. ‘Zergatik hil behar dugu?’ galdetzen dugu etengabe. Niretzat, ordea, heriotza bizitza da, bizitzak heriotzari gabe zentzurik ez daukalako, eta horrela onartzen dut”. Iñaki Otxoa de Olza mendizale nafarra zenaren hitzak dira, ‘Pura Vida’ dokumentalean jasotakoak (Annapurnan hil zen, 2007an, edema batek jota, 7.000 metrora).

Hamaika aldiz ikusi dut dokumental hori. Ostiral gauean, Amaia Agirreren istripuaren berri eduki eta gutxira, berriro. Motibazio, hausnarketa iturri dira Otxoa de Olzaren hitzak niretzat. Ohe ondoko kaxoi batean daukadan egunkari azala bezala. Hari ere erreparatu nion. ‘Betiko mendian’ jartzen du. Felix Iñurrategi mendizalea Gasherbrum-II mendian hil zenean argitaratu zuen Euskaldunon Egunkaria-k, duela 23 urte. Inpaktu latza izan zuen heriotza hark Euskal Herrian, gertutik eragiten gaituzten beste guztiak bezala. Halaxe beharko du Amaia Agirre urnietarraren kasuak ere: ‘betiko mendian’. Ez daukat Amaiairen inguruko oroitzapenik. 31 urte hark, mende erdia neuk, belaunaldi ezberdin bi, eta Amaiak Urnietatik hegan egin zuela ere hamarkada luzea bai. Koadrilakoek ere ez zuten ezagutu, lehen bistadizoa. Mendiko taldeko kide batzuk bai, beste ezagun batzuk ere bai. Taberna zuloan entzun nuen pasa den asteburuan,



Fitz Roy mendiaren ikuspegi ezaguna. WIKIPEDIA

hainbatetan esaten den esaldia, mendian heriotzaren bat gertatzen denean: ‘Zertara joan dira hara, hainbeste arrisku hartuz? Gero pasatzen dena pasatzen da’. Ez ados erabat, iritzi horrekin. Euskal Herria zerbait bada mendi herria baita. Ze euskaldun ez da mendira joaten sarri? Izan etxe ondoan edo munduaren beste puntan? Zailtasunik gabekoa, edo muturrekoa duena? 0 arriskurik ba ote, mendira joan gabe ere? Heriotzatik libre al daude mendi zailak igotzen ez dituztenek? Amaia mendizale eta eskalatzailerik aparta zen. Aparta. Espainiako Mendi Federazioko Mendi eta Eskalada taldeko kidea zen, eta eginak zituen bi igoera aipatuta, ezinezkoa da bere maila ona auzitan jartzea: Grandes Jorasses-eko Groucho Marx bidea egin zuen lehen emakumea izan zen (Frantzia eta Italiako Alpeak), baita Izenik Gabeko Dorreko

Eternal Flame bidea ere, Karakorum-en (Pakistan). Bi mendi horien azpian egona naiz, eta ezinezkoa dirudi haiek igotzea. Egoera hauetan sarri entzuten den bestea da honakoa: “behintzat gustukoa zuena egiten hil da”. Kontsolamendu pobrea da, heriotza edo noiz hil ez baita aukeratzeko, normalean. Mendizaleak disfrutatu, gozatu egin nahi du, muturreko sentazioak bizi, mugaraino joan, beste guztiok bezala. Ez du hil nahi, bailarara onik bueltatu baizik. Heriotzak hori egiten harrapatu du Amaia, zoritxarrez. Alfred Einstein-en esaldi ezagun batekin bukatu nahi nuke: “Bizitza oso arriskutsua da. Ez gaizkia egiten duen jendearengatik, gertatzen dena ikustera mugatzen den jendearengatik baizik”. Ziur nago Amaia Agirre ez zela gertatzen dena ikustera mugatzen zen horietakoa. Besarkada beroa bere familiari.



Haizea Lekuona. UKE

Garaipen garrantzitsua, atsedenaldiaren aurretik

ESKUBALOIA Urnieta Quel Abogados taldeak hirugarren postuan amaitu du lehen itzulia

Erredakzioa URNIETA
Atsedeen hartzea dagokio Urnietako taldeari, oraingoan. Puntuak pilotzeko aukerarik gabe, sailkapenaren aurrealdea gehiago estutu daiteke. Aurreko asteburuan nagusitasuna erakutsi zuten partida osoan. Aurkariak amaiera aldera estutu zituen.

ESKUBALOIA	
1. Lurraldeko senior emakumezkoa	
SAILKAPENA	
1 EIBAR	21 puntu
2 ORIO	19 puntu
3 URNIETA QUEL ABOGADOS	18 puntu
4 IRAULI	17 puntu
5 MUNTARPE	16 puntu

Urnietako Artola harategia

ESKUBALOIA Euskadiko senior gizonen txapelketako A Multzoko aurrera doa denboraldia eta Urnietako taldeari zaila egiten ari zaio aurkari mailari eustea. Hamairu partida jokatu ostean partida bakarra irabazi dute. 8 taldeko ligan azken postuan sailkatuta daude, eta, aurrekoan, Muskizen zelaian galdu egin zuten (29-21).



KARMOTISSA

Indiatik Ziprera itzuli da

FUTBOLA Zipre-India bidaiaren joan-etorria gauzatu eta berehala jokatzeari ekin dio Karmiotissa taldean. Ligako 9. postuan sailkatuta dago, eta debuta egin zuen partidari galdu egin zuten. Aste honetan beste bi jardunaldi jokatu dituzte. Errumanian eta Espainian aritu ondoren, Indiako North East United taldera egin zuen jauzi andoaindarrek. Zipreko Limassol hirian da berriro.

Kimu berriak igeriketan

IGERIKETA Buruntzaldea IKT taldeko igerilari gazteak Test/Liga izeneko jardunaldietan parte hartzen ari dira. Aurreko asteburuan Tolosako Usal kiroldegian izan ziren. Hamaika lagunek ordezkatu zuten Beterri-Buruntzako kluba. Alebin mailakoak, berriz, "Alebinen teknifikazio saria"-n parte hartuko dute igande honetan. Egun osoko jardunaldia izango da.



BURUNTZALDEA IKT

Kutxabank Masters ligaxkari ekingo diote, larunbat honetan

ERREMONTEA Ezkurra II.ak Azpiroz garaitu zuen buruz burukoan, eta Barrenetxearen aurka ariko da

Erredakzioa URNIETA
Ansa, Barrenetxea eta Ezkurra II. Horiexek dira Kutxabank Masters ligaxka jokatu duten hiru erremontistak. Urriza osatze bidean dela, Ansa urnietarrentzat txapela eskuratzeko

aukera berria da. Baina Barrenetxea ez da atzean geratuko, eta duen palmarsa horren lekuko da.

Ezkurak 30-21 gaititu zuen Azpiroz, banakako Kutxabank Masterseko atariko buruz bu-

Bitik bi garaipen eskuratu dituzte

SASKIBALOIA Kadete mailakoek Irungo Errobide garaitu zuen, Allurralden (52-39)

Erredakzioa ANDOAIN
Asteburuan sailkapenean lehen postuan dagoen Ordiziaren kantxan ariko dira. Larubatean izango da Majorin, 09:15tan hasita.

SASKIBALOIA	
Kadete, partaidetza	
SAILKAPENA	
1 ORDIZIA	4 puntu
2 GOIERRI	4 puntu
3 GANBARA	4 puntu
4 ANTIGUA	3 puntu
ASTEBURUKO PARTIDAK	
09:00 <i>Plastigaur (inf)-BKE / Lar, 28</i>	
10:30 <i>Ganbara (jub)-Aterpe / Lar, 28</i>	

Sailkapeneko onenen aurka garaile irten da Euskalduna

FUTBOLA Anaitasuna liderra eta Aloña Mendi hirugarren sailkatua jarraian garaitu ditu

Erredakzioa ANDOAIN
Hiru talde daude gaikaldean, sailkapenean, eta gaurkoz sasoi onena Andoingo taldea erakusten ari da. Bigarren indartu dute, bolada onaren seinale. Asteburu honetan Elgoibarren zelaian ariko dira, sailkapenean 11. postuan dagoen taldea.

FUTBOLA	
Ohorezko Jubenil Maila	
SAILKAPENA	
1 ANAITASUNA	36 puntu
2 EUSKALDUNA	30 puntu
3 ALOÑA MENDI	25 puntu
4 ORIOKO	25 puntu
6 URKI	25 puntu

Gorengo mailako liga

FUTBOLA Ostadarren zelaian 2-3 irabazi ostean, sailkapenaren aurrealdean jarraitzen du Euskaldunak. Joera onari eusteko aukera izango dute asteburuan, Ubitarten. Hondarribia taldea hurbilduko da. Lehen itzulian, Euskaldunak 1-2 irabazi zuen.

ASTEBURUKO PARTIDA
— *Euskalduna-Honbarribia / Lar, 28*

rukoan. Doneztebeko aurrelariak jokoan Azpirozek baino baliabide gehiago dituela erakutsi zuen. Hori bai, ligaxkan, Ezkurak bere maila igo beharko du sakearekin, arlo horretan ez baitzen batere egoki aritu. Ansa eta Barrenetxea bezalako aurkariak ez dute horrelako oparirik alperrik galduko.

Larunbat honetan, 16:30ean, hasita, ligaxka abiatuko da Ezkurra eta Barrenetxearen arteko partidarekin. Ansa jokoan sartzeko zain dago.



Endika Barrenetxea. ORIAMENDI

"Maila altua erakusten ari naizela sumatzen dut"

JAVI MENTA ANDOAINGO KORRIKALARIA

ATLETISMOA Zumeatarra Kirol Taldeko korrikalari baliotsua bilakatu da; astez aste, bere mugak gaintzeko lanean aritzen da; hala erakusten ari da azken boladan

Mikel Arberas ANDOAIN

Javi Mentak urteak daramatza lasterketetan parte hartzen eta, bereziki, maila altua erakusten. Urrutira joan gabe, Behobian gainkaldeko postuetan sailkatu zen eta Betelu-Araitx krosean lehen postua eskuratu zuen, absolutuetan. Entrenatzen eta lehiatzen jarraitzeko gogo bizia duela aipatu dio Aiurriri.

Nondik dator zure lasterka egiteko zaletasuna?

Gaztetan futboleko jokatzeko nuen, baina, zoritxarrez, 25 urterekin, belauneko lesio nahiko larria eduki nuen. Beraz, egun hartatik aurrera, ohiko mugikortasuna berreskuratzeko lanean jarri nintzen. Horrez gain, denbora neraman triatlai bat egiteko motibazioarekin eta nire lagun batzuk korrikalariak zirenez, gogotsu ekin nion helburu berriari. Horrelaxe hasi nintzen lasterketen munduan sartzen. Gainera, triatlai lasterketa egin nuenean, ohartu nintzen, atletismoko froga zela gustukoe-na nuena, gaur arte.

Nola hasi zinen lasterka, bakarrik ala taldean?

Nire kabuz hasi nintzen korrika. Urte batzuen ostean, atletismoa seriotasun handiagoarekin lantzea erabaki nuen, beraz, Zumeatarra Kirol Taldean sartu



Javi Menta. AIURRI

nintzen. Esango nuke, gutxi gorabehera, duela bostpasei urte igaro direla Zumeatarran hasi nintzenetik. Oso gustura nago. Zaila al da maila altuari eustea, egunez egun eta astez aste? Niretzako ez da horren zaila. Izan ere, oso gustura aritzen naiz korrika, eta pasio hori egu-

nerokotasuneko errutina bilakatu dut. Egunero tartetxo bat hartzen dut entrenatzeko eta pozik betetzen dut ezarritakoa, ihesbide bat da niretzat. Zein maiztasunekin entrenatzen duzu? Normalean egunero entrenatzen dut. Kalean egin ohi dut laster-

ka, ezer berezirik egin gabe eta niretzat erosoena dena. Horrez gain, astean behin edo bitan, pistan intentsitate gehiagorekin aritzen naiz.

Horrez gain, txapelketetan parte hartzen dut. Normalean, igande goizetan izan ohi dira; bertan erakutsi dezaket astez aste egindako esfortzua eta entrenamenduen emaitza. Nire buruari helburuak jartzen dizkiot norberaren mugak gaintu ahal izateko; izan ere, lasterketak hobekuntza eta gaintitze prozesu baten parte dira.

la egunero entrenatzen duzu eta, asteburuetan, sarritan, lasterketak edukitzen dituzu. Nola uztartzen duzu lana eta zaletasuna?

Ondo moldatzen naizela esango nuke. Ez naiz oso zorrotza ordutegiekin, hortaz, laneko ordutegira egokitzen naiz. Ez dit asko axola goizean edo arratsaldean entrenatzea.

Gustura al zaude, azken aldian, lortzen ari zaren emaitzekin?

Egia esan, bai. Denboraldia gogor hasi dut eta maila altua erakusten ari naizela sumatzen dut; egunetik egunera hobetzen ari naiz, eta horrek asko motibatzen nau. Esaterako, Araitx-Betelun egindako lasterketan, garaipena eskuratu nuen absolutuen mailan. Horrek guztiak, jarraitzeko eta entrenatzeko indarra ematen dit.

Lortutako emaitzak onak dira eta maila oso altua erakusten ari zara. Koska bat igotzeko prest ikusten al zara?

"10 KILOMETROKO LASTERKETAK DITUT GUSTUKOENAK; BAITA MARATOI ERDIAK ERE"

Azken aldian, nire marka propioak gaintitzen ari naiz. Duela gutxi, Euskadiko Txapelketan pistako 3.000 metroko frogan parte hartu eta marka oso ona lortu nuen. Hala ere, oso zaila da Euskadikotik Espainiakora jauzi egitea; izan ere, gutxiengo denbora bat lortzea ezinbestekoa da, eta, niretzat, behintzat, oso oso zaila da.

Eta zein lasterketa duzu gogokoen?

Ez dut lasterketa zehatz bat buruan, baina 10 kilometrokoak dira gehien gustatzen zaizkidan lasterketa motak. Maratoi erdiko probak ere oso gustura egin izan ditut.

Errepidean eta pistan lehiatzen duzu. Inoiz pentsatu duzu modan dagoen trail running modalitatea praktikatzeko?

Udan, mendialdera joan izan naiz entrenatzera, baina belau- nean mina hartu nuenetik, horrelako praktikek beldur apur bat ematen didate. Izan ere, esfortzua askoz ere handiagoa da gorputzeko atal horretan. Dena dela, praktikatzeko aukera edukiko dut eta, ahal dudanean, animatuko naiz.

Ba al duzu datozen asteetan lasterketarik egiteko asmorik?

Pare bat ditut, bai. Otsaileko lehen asteburuan Donostiako Ulija lasterketa daukat, 10 kilometrokoa. España osotik bertaraten da jendea lasterketa famatua delako. Ondoren, martxoan, Laredon (Kantabria) beste 10 kilometroko lasterketa batean parte hartuko dut.

"EGUNERO, TARTETXO BAT HARTZEN DUT ENTRENATZEKO, ETA GUSTURA BETETZEN DUT EZARRITAKOA"

Lehen erregional mailako igoera fasea hastear da, Urnietarentzat

FUTBOLA Lengokoak-Urnieta izango da fase berriko lehen partida, asteburu honetan

Erredakzioa URNIETA

Hamalau jardunaldiko ligaska antolatu zuen futbol federazioak, bost multzotan banatuta. Lau garrenean aritu da UKE, eta taldeko bigarrena izan da. Ligako datuei erreparatuta, bost

multzoak kontutan hartuta, garaipen gehien eskuratu dutenen artean daude Idiazabal, Urnieta eta Vasconia taldeak. Urnieta 4. multzoko bigarrena izan da, Idiazabalen atzetik. Lengokoak, igoera faseko lehen

aurkaria, 1. multzoko hirugarren sailkatua izan da zortzi garai- penekin.

FUTBOLA		
1. Erregionala, 4. multzoa		
SAILKAPENA		
1	IDIAZABAL	36 puntu
2	URNIETA	34 puntu
3	LAZKAO	31 puntu
4	INTXURRE	22 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA	
—	Lengokoak-Urnieta / Lar, 28



Urnietako senior taldea, artxiboko irudia. UKE

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 26

URNIETA Bertso bazkaria

Arkupe Nafarroako Jubilatuen Elkartek antolatuta, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso ariko dira.
14:00, Oianume sagardotegia.

URNIETA Matrikulazioa

Jolas libreka, jolas kooperatibo eta tradizionalak, abestiak, jostailuak, sormen tailerrak eta ipuinak Udal Ludotekan. Ordutegia: astelehenetik ostegunera 17:00etatik 19:00etara.
Azken eguna: Urtarrilak 26.

ANDOAIN Dirulaguntza

Euskaraz ikasteko diru-laguntzen prozedura berri du Udalak.
Informazioa:
andoaindarraeuskaraz.eus.

OSTIRALA 27

ANDOAIN Erakusketa

Imanol Goikoetxea artistaren erakusketaren irekiera-ekitaldia.
Urtarrilak 27-Otsailak 25. Bastero.

ANDOAIN Lehiaketa

Martxoaren 8a iragartzeko lehiaketa deitu du Andoaingo Berdintasun sailak. Ondoko testua azaldu behar da: "Martxoak 8 - Emakumeen Nazioarteko Eguna. Andoain 2023". 450 euroko saria dago jokoan.
Lanak aurkezteko eguna: Otsailak 8, Bastero Kulturgunean.

ANDOAIN Opera

Giacomo Pucciniren "Boheme" opera Basteroko pantailan ikusgai izango da. Albaniako Saimir Pirgu eta Federica Lombardi italiarra dira kantariak, bertsio honetan.
19:30, Bastero.

LARUNBATA 28

ANDOAIN Kanpaina

Kafe kapsulak birziklatzeko kanpaina Andoainera iritsiko da, Mankomunitatearen eskutik.
10:00-14:00. Merkatu plaza.

ANDOAIN Haur ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Marimotots.
Sarrerak agortuta daude.
16:30, 19:00. Bastero. 6 euro.



Pirritx, Porrotx eta Marimotots. KATXIPORRETA

ANDOAIN Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Ibilbide oparoa osatu dute pailazoez eta hainbat pertsonaia igoko dira taula-gainera. Emanaldia bidez grabatuko da. Mozorrotuta agertzeko deia luzatu dute.
Urtarrilak 28, larunbata. 16:30, 19:00, Bastero.

ANDOAIN Manifestazioa

GKS mugimenduak manifestazioa deitu du, Bilboko kaleetan.
Andoaindik autobusa abiatuko da.
15:50, Makaldegia.

IGANDEA 29

URNIETA Haur ikuskizuna

"Kontari": Mundu osoko abestiak Landarbaso abesbatzaren eskutik.
18:00. Sarobe. 3 euro.

ASTELEHENA 30

URNIETA Odol-ematea

Odola eman nahi duenak txanda hartu beharko du, alde zuzenetik, 943 00 78 85 telefono zenbakira hots eginda.
16:30, Gaztelekua.

URNIETA Aurkezpena

"Pantailak Euskaraz" ekimenaren aurkezpena, AEKren Zilegi Eskolaren eskutik. Hizlaria: Ioritz Gonzalez.
18:00, Sarobe.

ANDOAIN Entsegua

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak Santa Eskean irten aurretik, entsegua antolatu du. Lehena urtarrilaren 30ean izango da, eta bigarrena otsailaren 1ean.
20:00, Ambrosia Olabide.

ASTEAZKENA 1

ANDOAIN Entsegua

Larramendi Bazkunak Santa Eskean irteko entsegua antolatu du.
20:00, Ambrosia Olabide.

OSTIRALA 3

ANDOAIN Antzerkia

"Familia Sarekada". Nerea Gorriti, Mikel Laskurain, Ainhoa Aierbe eta Xanti Korkostegi: "Komedia katartikoa, Interneten pribatutasuna eraisten ari diren garaiotan".
20:00, Bastero. 12 euro.

LARUNBATA 4

ANDOAIN Kantu-erronda

Santa Ageda bezperako kantu-erronda, Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren eskutik.
18:00, Dr.Huitzi 15etik abiatuta.

URNIETA Batzarra

Denda Berri elkartearen batzarra, egoitzaren lokalean. 17:00etan lehen deialdian, eta 17:30ean bigarren. 2022ko diru-sarrera eta gastuen balantzea eta onarpena aztergai izango dira. Baita 2023rako programa eta aurrekontua ere. Galde-erreguekin amaituko da.
17:00, Denda Berri.


ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

El peor vecino del mundo
Ig., 29. 19:30.
Asti, 30. 19:30, 22:00.

Inspector sun y la maldición de la viuda negra.
Ig, 29. 17:00.

La Bohème
Opera.
Ost, 27. 19:30.



SINOPSISIA

**El peor vecino del mundo**

Zuzendaria: Marc Forster. **Gidoia:** David Magee. **Aktoreak:** Tom Hanks, Mariana Treviño, Manuel García-Rulfo, Rachel Keller, Cameron Britton, Mike Birbiglia, Kelly Lamor Wilson, Josefine Lindegaard, Elle Chapman. **Herrialdea:** AEB (2022). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, komedia. **Iraupena:** 126 min.

Adiskidetasuna, hizpide

Otto Anderson (Tom Hanks) alargun kaskagorria da. Familia alai bat aldameneko etxera joango da bizitzera, eta

Ottok bere mundua hankaz gora jarriko duen adiskidetasun zailari ekingo dio. 2015eko film suediar baten remake-a da.

Urnietako Santa Ageda bezperako kantu-erronda

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperako erronda San Juan plazatik abiatuko da.

Arratsaldeko 18:00etan ipini dute hitzordua. Kantu erronda prestatzeko entsegua deitu dute antolatzaileek. Datorren astelehenen izango da, urtarrilak 30, 19:00etan hasita Lekaio kultur etxean.





Xabat Ilarregi. BERTSOZALE

Salesiar ikastetxea On Bosko astean murgildu da

Bertsolariak, "Ametsen lorategia"-ren irekiera-ekitaldia eta Bosko Anitzekoen musika jaialdia, asteburuan

Erredakzioa URNIETA

Kirolarien solasaldiarekin eta magia emanaldiarekin hasiera eman zioten Urnietan, On Bosko asteari. Egitarauak jarraipena izango du, datozen egunetan.

Urtarrilak 27, ostirala

Xabat Ilarregi eta Iker Ormazabal bertsolariek bertso saio bikoitza eskainiko dute, goizez.

Urtarrilak 28, larunbata


11:30ean "Ametsen lorategia" inauguratuko da Magale Txiki

eraikinean. Era berean, Urnietako salestarrek Presentación de Maria ikastetxearen titular-tasuna hartu dutela ofizial egingo dute.

15:00etan hasita, bestalde, Bosko Anitzekoen musika-jaialdia iragarrita dago.

Urtarrilak 30, astelehena

"Genero indarkeria eta tratuanak" gaiaren gaineko hitzaldia, goizez, Harremanak taldeko Maddi Egizabalen eskutik. Egunean zehar ekintzailatza azoka.



SUPERHACHE

Super Hacheren ekimen berria

Super Hache elkarteak Zumarragako ospitaleko hainbat gune horma-irudi ederrez berritu ditu. "Ospitaleratutako haurren eta haien senideen eta solairu horretan lan egiten duten profesionalen esperientzia hobetzen saiatu nahi duen beste humanizazio-zati bat", halaxe definitu du ekimena elkarteak. Esker berezia adierazi diote Aritz Egea eta Eguzkiak Iraun Bitartean taldeari, "euren proiektu polita eta ekarpen ekonomikoari esker, zirkulu polita ixten baitugu inguru berean".



Joxe Manuel Erkizia Uriak ehun urte beteko ditu aurten. ONTZA

Aitortza ekitaldia Joxe Manuel Erkizia Uriari

Ontzako ohiko batzarrean Pedro Elustondo Zalakain ohorezko bazkide izendatuko dute

Komunitatea

Ontza elkarte

ANDOAIN

Andoaingo Ontza elkarteak Urteko Ohiko Batzarra egingo du datorren larunbatean, urtarrilak 28. Bertan, urteko balantzea egin eta Direktiba Berria izendatzeaz gain, Ohorezko Bazkide izendatuko du Pedro Elustondo Zalakain kidea.

Aitortza ekitaldia

Joxe Manuel Erkizia Uriari

Batzar osteko bazkideen arteko afarian onarpen goxoa egin nahi zaio aurten 100 urte beteko dituen Joxe Manuel Erkizia Uriak bazkideari: "andoaindar eta kale-txikitar petoa, ehiztari amorratu eta muslari sutsua, kirolaria eta lagun handia izateaz gain, hurbileko eta lagun giroko pertsona da Joxe Manuel Erkizia eta horregatik, egin nahi diogu eskertza ekitalditxo hau".

Ekitaldia jatzeko, Aitor Mendiluzek propio sortutako bertsoak eskainiko dizkiogu Erkiziari eta mendeurren oparoa bete dezan desio diogu. Milesker denagatik, Joxe Manuel".

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN

Iker eta Haitz

Urtarrilaren 28an Ikerrek 10 urte eta 30ean Haitzek 7 urte. Zoragarriak zarete eta oso harro gaude zueztaz! Ikaragarri maite zaituztegu!!! Amatzu, Aitatzu eta Hegoa.



ANDOAIN

Nemesio Zatarain

Urtarrilaren 23an urteak bete zituen. Zorionak etxeko eta biloben partetik: Unax, Aner eta Oinatz.



ANDOAIN

Ongi etorri Beñat

Urtarrilaren 18an jaio zen Beñat. Ongi etorria eta zorionak Ainara eta Mikel, bere ama eta aita.



ANDOAIN

Iruñe, Aitor, Iker, Imanol eta Maialen, - zorionak!

SORIONEKU gu zuen irribarrea ta maitasuna ondoan izateagatik! Biba zuek!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ez, zorion-agurra helarazteko erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Ildatzi: izen-abizenak, herria, eguna.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitetz bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

Whatsapp bidez:

619 163 537.

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732 edo publizitatea@aiurri.eus

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro



Olatz Peon Mankomunitateko lehendakaria, Gurutze Etxezabal lehendakari-ordea, Gemma Ezeiza mankomunitateko teknikaria eta Iñaki Muro Kafea.eco enpresako arduraduna. AIURRI

Kafe kapsulak biltzeko edukiontzi berria

Kafe kapsulak biltzeko edukiontziak jarriko dira Andoainen, olioaren edukiontziaren ondoan. Kapsulak kontsumitu, hustu gabe bere horretan edukiontzi horietara bota eta Kafea.eco arduratuko da hondakina jasotzeaz. Mankomunitatearen ekimena da

Irune Alfonso ANDOAIN
"Kafe kapsulak kontsumitzean, sortzen den hondakina plastikozko edo aluminiozko ontzia eta kafe-hondarra dira eta oro-korrean, bi hondakin horiek batera deuseztatzeko ohitura dago, kafe-hondarrak edukiontzi marroira eta kapsulak edukiontzi horira bota beharrean". Anali horretatik abiatuta, Mankomunitateak hondakinak bere horretan jasotzeko edukiontziak jarriko dituela iragarri du. Kapsulak kontsumitu, hustu gabe bere horretan edukiontzi berri horietara bota eta Kafea.eco arduratuko da hondakinak jasotzeaz. Eta, gerora, kapsulak birziklatu eta gero Mankomunitateak konbustiorako pelleta edo hazi-bolak sortuko ditu kafearen hondarretik abiatuta. Eta edukiontzi mota ezberdinak kapsulen ontzitik abiatuta.

Informazio puntua Andoainera iritsiko da, larunbatean. Hara gerturatzen diren lehenengo ehun eta berrogeita hamar pertsona hazi-bola bana oparituko zaie: "Hazi horiek etxeko lorontzi batean sartuz gero, udaberriko loreak erretuko dira".



Larunbatean, Andoainen. AIURRI

Informazio puntua Andoainen

Egunotan etxeko eskuorri bat banatuko dute, eta, horrez gain, informazio puntua izango da Andoainen.

- Urtarrilak 28, larunbata.
- 10:00-14:00.
- Merkatu plaza.

ZAIN DUGU AGATE DEUNA!

ENTSEGUAK:

- Urtarrilak 30, astelehena
- Otsailak 1, asteazkena

20:00

Anbrosia Olabide
egoitzako sarrera nagusia

IRTEERA:

- Otsailak 4,
larunbata

18:00

Doktor Huitzi kalea, 15.
Bazkunaren egoitza.



Urteroko usadioari helduko diogu eta berriro Andoaingo kale eta plazetan barrena ibiliko gara.

